



BARREN

TOKIKOM



Misioa Ekuadorren

Lorea Perez de Albeniz

AUBIXA ZENTROA

943 741 909
aubixa@outlook.com
Idotorbe auzoa - Elgoibar



GREMIOEN GIDA

Gidan agertzearen onurak!

21€
hilean

21 €ren truke, hileroko, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu Barren astekarian!

12aldiz
urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleho ikusia.

4.860
ale astero

4.860ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.





ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA



“‘Gaur Egun’ edo ‘Teleberri’ saiuek sutan jartzen naue sarrittan”

Abel, irakurri dot gaur Uxue Alberdik Maialen Lujanbiori egin dion elkarrizketia, Ainara Argoitiak BARRENERako jaso dauana. Neuk ere buruan darabilten kritika bat zekarren, EitB taldiari eindakua. Bertako *Gaur Egun* edo *Teleberri* saiuek sutan jartzen naue sarrittan. Garai bateko Telenorte gogorarazten die: Madrildik zuzendutako saiuek ematen debe. Sarri pentsatzen dot Telecincoko berrixak ikusi edo EitBkuak ikusi ez daguala alde haundirik. Antzera gertatzen da beste saio batzukin ere.

Euskal kultura eta euskeria sustatzia, gertukua izatia eta informazio gaixetan liderrak izatia daude 2013-2016 EitB plan estrategikuan. Nun galdu dira? Harritzekua da EitBn audientzia mailarik apalenian egotia? Zer nahi debe Madrilgo telebista ka-

tiei segika imitazio eskaxak eskaintzen badittuzte?

Nola nahi debe liderrak izatia, asteburutako *Gaur Egun* ordu erdiko saio pobria izanda? Nola izango dira informazio gaixetan liderrak Parisko atentatuen lehen berrixa emateko 15 ordu bihar izan bazittuzten? Nola izango dira gertukua, Murtzian gertutako zerbait etxe onduan gertatu balitz bezela kontatzen badabe eta etxeko makina bat konturi astirik eskaintzen ez badiue? Neguko zapatu gau baten manga motzian udan grabautako dantza saio bat eskaintziak oso toke kutria ematen dio ETB1i.

ETBn audientzia, eta ondorioz, eragiña beherutz dixez gelditu gabe. Nik ere gero eta gitxiago ikusten dot. Ez naiz beste kate batzutara aldatzen; telebistari paso egitten diot. Eta zuk Abel, zenbat kaso egitten diozu telebistari?



ABEL ARRIAGA



“EITBren gertutasun ezak haina edo gehiago kezkatzen naute kopia txarrek”

Aupa, Andoitz. Aitortu beharra daukat ia ez dudala telebistarik ikusten. Gurean, txikienak dira urrutiko aginte mandoaren jabe, eta hauek normalean, ETB3 aukeratzen dute. Nik berriz, niretzako denbora apur bat daukadanean, telebistari begira jartzea baino nahiago dut libururen bat irakurtzea edo-eta Interneten nabegatzea.

Maialen Lujanbiok duela zortzi urte, buruan txapela dotore jantzita zuela, "gobara" zer den irakatsi zigun gutako askori. Euskaratik eta euskaraz bizitzea, bi gauza ezberdin direla ere ohararazi zigun. ETB1 aipatu duzu, euskaraz egin arren, erdaratik pentsatu ohi duelako. Zer esanik ez, euskal hiztunak gaztelera hizketan jartzen dituen ETB2k. Gara egunkaria ere aipatu genezakeen, euskaratik pentsatu arren, gaztelera idazten duelako. Beste hainbat eta hainbat medio, elkarte eta per-

tsona aipatuko bagenitu ere, gutxi aurkituko genituzke euskaratik eta euskaraz bizi direnak. Nahiago dugu kopiatu eta kanpoko erreferentziez elikatu, euskaratik sortu eta kanpoan erreferente izaten saiatu baino. Maialenek dioten bezala, euskara aplikazio bat da, eta ez sistema eragilea.

Hala ere, aipatutako EITBren gertutasun ezak haina edo gehiago kezkatzen naute kopia txarrek eta hauek transmititzen dituzten baloreek. Hain arrakastatsua izan den *Goazen* telesaila, esaterako, kopia kaxkar bat iruditzen zait.. Duda asko sortzen dizkit bere ereduak: guapoak eta itsusiak, liderrak eta ahulak, bikote heteroak eta soilik heteroak, "tripontzi" deitzen dioten laguna... ez dakit ba! Telebista publikoak badauka ardura eta gaitasuna, programa dibulгатiboagoak eta kalitatezkoagoak egiteko. Xabier Madariagaren *Ur handitan* da horren adibide. Borondate pixkat balego...



JESUS JIMENEZ

Ekonomialaria

Diru trukaketarako whatsapp

kunderen artean Bizum aplikazioa sortu zuten partikularren arteko diru-trukaketak errazteko asmotan. Berrikuntza kasu honetan nabarmena da, bi pertsonaren artean diru kopuru jakin bat elkartrukatzeko aukera izatea eskuan dirurik izan gabe eta kontu zenbakirik jakin gabe.

Funtzionamendua oso erraza da, Bizum aplikazioa sakelako telefonoan instalatu eta erabiltzaile bakoitzak bere sakelako telefonoaren eta kontu korrontearen zenbakiak erlazionatzen ditu. Aplikazioan bertan ikusi daiteke sakelako telefono agendako zein kontaktuk daukan zerbitzu hori bere sakelako telefonoan, beraz, ezinbestekoa da bi pertsonak aplikazioa instalatuta izatea diru bidalketa gauza-

tzeko. Kasu honetan dirua bidaltzea, whatsapp mezu bat bidaltzea bezain erraz eta azkarra da, agendan izena aukeratu, diru kopurua idatzi, bidali, eta momentuan hartzaileak dirua bere kontuan izango du, nahiz eta kontua banketxe desberdinetan izan, inolako kosturik gabe.

Dudarik ez dago nobedade honek, bizitzaren arlo guztietako asmakuntza, aparailu eta aplikazio berri guztiak bezala, erabiltzailearentzako erraztasuna eta berehalakotasuna ekartzen duela, baina ezin ahaztu abantaila hauen truke ordaindu behar dugun prezioa. Posible al da berrikuntza, hobekuntza eta aurrerapen guzti hauetatik baliatzea sakelako telefonoaren morroi bilakatu gabe?

Gaur egun, teknologia berrien aroan, egunero izaten dugu asmakuntza, aparatu, aplikazio edo aurrerapen teknologikoen berri egunkari edota telebistan. Medikuntza, produktibitate tresnetan, aisialdian, eguneroko bizitzaren esparru guztietan... Finantzen mundua ez da atzean geratu eta duela hilabete batzuk 30 finantza era-

“Posible al da berrikuntza, hobekuntza eta aurrerapen guzti hauetatik baliatzea sakelako telefonoaren morroi bilakatu gabe?”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabala, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izaguirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Edurne Izaguirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► MENDAROTIK, ESKERRIK ASKO ODOL EMAILEEI

Eskutitz honen bitartez, Mendaroko Odol-Emileen taldekook eskerrak eman nahi dizkiogu Mendaroko herriari. Hainbat urtean Mendaro erreferente izan da Gipuzkoan odol-emaile eta biztanle kopuruari dagokionean. Lan izugarriaren emaitza da hori, jakina, baina azkenaldian, odol-emaile kopuruan behera egiten ari ginen, gurean nahiz beste herrietan.

Hala ere, poz-pozik egoteko moduan gaude, azken urtebeteari erreparatu gero. Izan ere, joera hori irauli eta aurreikuspen onenak gainditzen ari gara. Azkeneko, martxoaren 17an egin dira odol ateratzek Mendaron, eta marka guztiak ondu ditugu: 72 odol-emaile etorri zitzaizkigun, 62k eman zuten odola, eta haietatik bederatzi odol-emaile berriak ziren, aurrez odolik eman gabeak. Ezin hobeto! Kontuan izan behar dugu, iaz, guztira, 136 odol-emaile gerturatu zitzaizkigula eta martxokoekin bakarrik, iritsi garela iazkoen erdira.

Parte-hartzea ikaragarria izan da, eta eskerrak eman nahi ditugu. Jakina da zeinen garrantzitsua den hutsaren truke egiten den borondatezko lana, ez baita beti erraza izaten jendearen parte-hartzea ziurtatzea. Eskerrik asko hurbildu zineten guztioi, deialdia zabaltzen laguntzen diguzuen guztioi, era batera edo bestera laguntzaile bihurtzen zareten guztioi... Ezinbestekoak zarete, eta garbi izan egiten dugun lan hau denon onurarako dela. Norbanakoen ekintza izanik, eta urrats txikia dela eman dezakeen arren, elkarrekin pauso handia eman dugu aurrera. Erakutsi dezagun gure herriaren indarra, gure borondatearen mugagabea, eta jarrai dezagun odola ematen, bizia ematen!

Hurrengo deialdian, uztailean, guxtiago izango ez garelakoan, mila esker bihotzez guztioi! Bejondeizuela!

Mendaroko odol emaileak

► PRESO GAIXOAK ETXERA

ETAk desarmatze prozesuari bukaera emango dion honetan, espetxeetatik datozen albisteak gero eta kezagarriagoak dira. Presoen osasunaz arduratzen den Jaiki Hadi elkarrekin adierazi duenez, egoera larriandae daude presoen kopurua 22ra ailegatu da. Horrez gain, Aitzol Gogorza, Ibon Iparragirre, Manu Azkarate eta Oier Gomezen egoerak direla-eta, alarma gorriak piztu dira. Egoera guztiak larriak izanik ere, Oier Gomezena azpimarratu nahi dugu: tumore txarra du, metastasia izan du, eta bere egoerak mediku zaintza handia behar du. Radioterapia, kimioterapia eta kinesioterapia iraunkorrak behar ditu. "Presondegian egotearekin batera, ezina" ospitaleko medikuen txostenaren arabera. Horri gehitu behar diogu Kartzela Zuzendaritzak igorritako agiria. Bertan adierazten denez, soilik heriotzaren atarian dauden presoak askatuko dituzte.

Nola liteke bere buruari demokratikoa esaten dion estatu batek halako agindu krudel eta bihotzgabea sinatzea? Guzti horrengatik, mobilizatzea besterik ez zaigu gelditzen euskal jendarteari. Hori dela-eta, maiatzaren 6an Gasteizen egingo den manifestazio nazionalaren bidean, martxoaren 31n, ostiralean, giza-kate bat egingo dugu Maalako parkeetik Kalegoen plazaraino, egoera hauek salatzen eta aurreratzen. Bestetik, Auzitegi Nazionalak SAREri konfiskatutako dirua dela-eta, ostiral honetan, hilaren 24an, mahai bat jarriko dugu Kalegoen plazan, nahi duen orok aukera izan dezan SARE laguntzeko. Guardia Zibilak egindako lapurretak- 104.000 eurokoa- zulo handia laga digu gure lana egiten jarraitu ahal izateko.

Elgoibarko SARE

► LARUNBATEAN DONOSTIARA!

Larunbat honetan, martxoaren 25ean, Errausketaren Aurkako Mugimenduak Donostian manifestazioa egingo du *Alternatiba dagoelako, erraustegirik ez!* lelopean.

Dagoeneko era askotako erakunde, elkarte, talde eta herritarrek adierazi diote babesa manifestazioari. Aste honetan bertan CCOO, CGT, CNT, EHNE, ELA, ESK, HIRU, LAB eta STEILAS sindikatuek garbi adierazi dute ez dugula gure hondakinak tratatzeko azpiegitura garesti, kutsakor eta alferrikakorik nahi.

Gipuzkoan demostratzen ari gara, aspalditik eta egunero, ez dugula hondakinak erre beharrik, tratatzeko. Erakutsi dugu gai garela, bilketa on bat eginda, hondakinen parte oso handi bat aprobetxatu eta errefus kiloa jaisteko, eta erretzea ez den beste alternatiba bat emateko azken errefusari. Errausketak badauka alternatiba, demostratua dago alternatibak balio duela eta Gipuzkoan erraustegirik gabe ondu kudeatu ditzakegula gure hondakinak.

Baina nahitaezkoa da udalerririk askok egin duten bideari beste guztiak ere jarraitzea, ez baita onargarria batzuek 50 kg errefus azpitik botatzea, pertsonako eta urteko, eta beste batzuek 250 kg edo 300 kg botatzen segitzea. Ez da onargarria, eta ez da justua.

Zergatik gastatu behar ditugu 212 milioi erraustegia eraikitzen eta 700 edo 1.000 milioi, horiek kudeatzen? Astakeria galanta!


Larunbatean Anoetan, ikusiko dugu elkar, 17:00etan. Ez geratu etxean! Erraustegirik ez inon!

A.I.Z.

Elgoibarko AVS enpresa bisitatu zuen Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak astelehenean

Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak AVS (Added Value Solutions) enpresako instalazioak eta bertan egiten diharduten lana ezagutzeko bisita egin zuen astelehenean. Urkullurekin batera Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapia eta Teknologia, Berrikuntza eta Lehiarkotasun sailburuorde Estibaliz Hernaez Laviña ere izan ziren.

Jon Osoro eta Ricardo Diego elgoibartarrek eta Migel Angel Carrera gasteiztarrek sortu zuten AVS enpresa 2006an. Gaur egun ikerketa zientifikorako instalazio eta ekipamendu handietarako konponbide teknologikoen hornitzailea da. AVSk pisu handia du esportazioetan, eta Europako Espazio Agentziarekin egiten du lan Marteko sateliteetako bateko materiala, gero ikeritzeko asmoa dutena, jasotzeko misio batean. AVSren ardurak, zehazki, satelite horretan kokatuko den nabearen lurreratzetrenaren teknologia eta gainazaletik materiala jasoko duen beso robotikoa garatzea da. Enpresako hiru bazkideek bisita gidatua eskaini zieten Urkulluri eta Tapiari. Lehendakariak adierazi zuen Eusko Jaurlaritzak intentsitate teknologiko handiko enpresen sektoreari laguntzeko lerroak berrikusteko asmoa duela, eta nabar-



menduz zuen AVS enpresa Basque Industry 4.0ren adibide argia dela. Horrez gain, "Eusko Jaurlaritzak Euskadiren garapenari egonkortasuna emateko hartuta duen konpromisoa" azaldu zuen lehendakariak. Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian "giza garapen jasangarria" sustatzeko eta bere garapenean egonkortasuna bermatzeko duen asmoa azpimarratu zuen.

Azitain-Maltzaga bidegorri zatia egiteko proiektua idatziko dute datozen hilabeteetan



Elgoibarko bidegorriarekin lotura izango duen Azitain (Eibar) eta Maltzaga arteko bidegorri zatia egiteko proiektua idatzeko lehiaketa deialdia egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 200.000 eurokoa izango da, eta lehiaketa irabazten duen enpresak bost hilabete epea izango du proiektua idatzeko.

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Diputatu Marisol Garmendiak adierazi duenez, 1,5 kilometroko bidegorri zatia

izan arren, lan "konplexua eta garrantzitsua" izango da Azitain eta Maltzaga arteko bidegorria egitea. Garmendiak zehaztu duenez, inguru horretako orografia dela-eta, bidegorria eraikitzeko zailtasun handiak daude, eta horiek gainditzeko kostu handiko lanak egin beharra dago. Diputazioa eta Eibarko Udala saiatu ziren orain dela urte batzuk ere Azitain eta Maltzaga arteko bidegorria egiteko proiektua martxan jartzen, baina aurrekontua "handiegia" zela-eta asmo horiek atzeratzea erabaki zuten 2012an. Lanek lau milioi eurotik gorako kostua izango zutela aurreikusi zuten orduan. Deba ibaiaren eta trenbidearen ondoan eraiki beharrik zailtzen ditu lanak, eta Eusko Trenbide Sarea eta Ura agentziaren lurretan eraiki beharko dutenez, horiekin adostu behar dituzte baldintzak. Era berean, Elgoibartik datorren bidegorriarekin nola lotu proposatu beharko du lehiaketa irabazten duen enpresak.

Azitain eta Maltzaga arteko bidegorria egiten dutenean Elgoibarko bidegorriarekin bakarrik ez, Soraluzerekin ere lotu ahal izango da Eibartik datorren bidea. Hala, Debabarrena eta Debagoiena eskualdeak batzeko aukera izango da, dagoeneko eraikita dagoelako Soraluze eta Bergara arteko bidegorria.

Olaso eta Olasope industrialdeetako asfaltatze lanen lehen fasea amaitu dute



Elgoibarko Udalak Olaso eta Olasope industrialdeen asfaltatze lanen lehenengo fasea bukatu du. Olaso kalearen bukaerako biribilguneko asfalto berri dute, eta baita, Asiator pabiloien aurrealdea eta Olasope industrialdearen sarrera ere. Bestalde, Morkaiko kaleko eta Urantzadi 20ko garajeen aurrealdeak ere asfaltatu dituzte. Udalak 63.158,47€+BEZ inbertitu ditu asfaltatze lan horietan.

Olaso eta Olasopeko asfaltatze lanen bigarren fasean aparkalekuak berrantolatu eta lurzorua konponduko dituzte. Obra hauek udan egingo dituzte, eguraldi hobea egingo duelakoan, eta tailerren egunerokotasunean ahalik eta gutxien eragiteko.

Danborradaren aldeko zapiak salduko ditu Atabal elkarteak biharko ferian

Atabal elkarteak jarriko du txosna bihar azken zapatuko ferian, eta pin-txoak eta edariak saltzeaz gain, Trinitateetako danborradaren aldeko zapiak salduko dituzte. 4 euroan salduko dituzte zapia eta pina. Danborradari laguntzeaz gain, Trinitate jaietan zapi hori janztea ohitura bilakatzea nahi dute. Aurrerantzean, Muruamendiaraz, King-Kong, Jai-Alai, Izagirre eta Maalan egongo da salgai zapia. 11:00etan zabalduko dute txosna.

Azokako egitaraua, bestalde, ohikoa izango da: Elgoibarko baseritarrek euren baserrietan ekoiztutako produktuak jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan, 9:00etatik aurrera. 12:00etan landaketa tailerra izango da haur eta gazte-



txoentzat, eta ordu berean irtengo dira Kale Kantariak ere kantura. Eguerditik aurrera, bestalde, ganadu erakusketa egingo dute Aita Agirre plazan.

Hezkuntzako grebarekin bat egin zuten Elgoibarren eta Mendaron

Lan baldintzak hobetu, hezkuntza eraiki lelopean, Steilas, ELA eta LAB sindikatuek egun osoko lanuztera deitu zituen eguaztenerako Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko unibertsitatez kanpoko sektore publikoetako langileak: Haurreskoletako, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Lanbide Heziketako irakasle, hezitzaile, sukaldari eta garbitzaileak, hain zuzen ere, eta Elgoibarren eta Mendaron, ikastetxe publikoetako langile gehienek egin zuten bat greba deialdiarekin.

Elgoibarren oihartzun zabala izan zuten lanuzteak eskola publiko guztietan, Meka Lanbide Eskolan eta IMHn izan ezik.

Arreiturre Institutuan irakasleen %78k egin zuten greba, eta Elgoibarko Herri Eskolan irakasleen eta langileen %80k. Haurreskolan, bestalde, langile guztiek egin dute bat grebarekin, eta gutxieneko zerbitzuak eman zituzten, legeak agindutakoaren arabera. Meka Lanbide Eskolan, aldiz, 60 irakasle baino gehiago daude eta 11k egin zuten greba. IMHn ez zuten grebarik egin.

Mendaroko Ikastolari dagokionez, irakasleen klaustroko kideen gehiengoak egin zuten greba.

Joseba Zinkunegi omenduko dute domekan, Eibarren

Joseba Zinkunegiri (Eibar, 1966) omenaldia egingo diote domekan Eibarren, bere jaioterrian. Zinkunegi otsailaren 26an hil zen istripuz, Ezkaraiko San Lorenzo menditik amilduta. 12:00etan izango da ekitaldia Eibarko Legarre auzoan.

► LOREA PEREZ DE ALBENIZ

‘ÓRDAGO A PEQUEÑA’ DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA

Lorea Perez de Albenizek (Elgoibar, 1974) zuzendutako ‘Órdago a pequeña’ dokumentala eskaini zuen ETBk joan zen domekan. Euskal Herriko historian berebiziko garrantzia izan zuten Euskadiko elizbarrutiko misiolarien lana eta Bittor Garaigordobil Los Rioseko (Ekuador) gotzain ohiaren ibilbidea laburtzen ditu lanak. Zesatenjue naz ekoiztetxearekin zuzendu duen bigarren dokumentala izan da hau. Lehenengo lana gaixotasun neurologikoei buruzkoa izan zen, eta Maier Gurrutxaga elgoibartarraren alaba izan zuen protagonista. Bi lanak desberdinak izan arren, oinarrian biek “elkartasuna eta autosuperazioa” dituztela adierazi du egileak.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Bittor Garaigordobil da dokumentaleko protagonista. Aurkeztuko al diguzu Bittor?

Bittor Garaigordobil 101 urteko aitona da. Euskadiko Elizbarrutiko misiolaria izan zen (Gaur egun Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko Elizbarrutiak ditugu, baina garai hartan dena bat zen), eta Vatikanuari eskatu zioten baimena misioetara joan ahal izateko. Bittor izan zen Ekuadorrera joan ziren lehenengoetariko abadea. Ekuadorreko Los Rios probintziara joan zen 1948an, eta han bizi izan zen 30 bat urtez. Hasieran apaiz modura joan zen, eta orduko gotzaina hil zenean eskaini zioten berari postu hura. Abade euskaldunen talde honek lan egiteko oso modu berezia zeukan, ekonomikoki autonomoak ziren, eta han bertako abadeek egin ezin zituzten hainbat lan egiteko aukera zuten. Ez zuten nahi hango gotzain baten aginduetara egon, eta horregatik onartu zuen Bittorrek gotzain postua.

◆ 1948. urtean iritsi zen Bittor Ekuadorrera. Zer aurkitu zuen han eta zein izan zen bere egitekoa?

Hauek eskola zaharrekoak ziren, eta lurralde hura ebanjelizatzerara joan ziren, guztiz konbentzituta, gainera. Fededunak ez zirenak kristautasunerara ekarri nahi zituzten. Baina iritsi zirenean konturatu ziren han katolikoak eta fededunak zirela, baina erlijioa beste modu batera bizi zutela. Ebanjelizatzea ez zen haiek zuten beharra; beste behar batzuk zituztela konturatu ziren. Lurralde oso pobrea zen; pobrezia egoera larrian bizi ziren. Feudalismoa zegoen indarrean, eta gehienak nagusi batentzat lan egiten zuten nekazariak ziren. Lau jauntxo zeuden eta haiek kontrolatzen zuten dena. Horrez gain, osasun arazo larriak zeuden, eta ez zegoen osasun sistemarik ezarrita. Jende asko hiltzen zen ur txarra edanda, edo suge gorriak hortzaka eginda. Suge pozoitsua da, eta antidotoa hartu ezean, hil egiten zara. Antidoto hori botiketara saltzen zen, baina oso-oso garesti. Jendeak bere ondasun guztia hipotekatu behar izaten zuen botika hori erosi ahal izateko. Costa Rican, aldiz, oso merke saltzen zen. Bittor eta bere lantaldeak eraman zuten botika hori Ekuadorrera, eta erositako prezioan saltzen zioten behar zuenari. Proiektu asko jarri zituzten martxan, baina bereziki, hango biztanleei erakutsi zieten euren kabuz bizi zuten, ahalduntzea esaten den hori.

◆ Dokumentala grabatzera joan zarete zuek Ekuadorrera ia 70 urte geroago. Nolakoa da egungo egoera?

“Egoera jakin batean mundua ikusteko modua nola aldatzen den azaltzen du dokumentalak”

lazko maiatzean joan ginen, eta hura oraindik oso pobrea da. Nire amak umea nintzela kontaktzen zizkidan gauzak aurkitu nituen han. Los Rios probintzia hegoaldean dago. Iparraldea, Quito ingurua, aberatsagoa da, baina hegoaldea oso pobrea da. Aberastasuna apur bat gehiago banatu dela esango nuke, baina oso lurralde feudala da oraindik. Jende gehiena jornaleroa da; beste batzuentzat lan egiten dute, banana edo koko plantazioetan.

♦ **1982an itzuli zen Bittor Euskal Herrira, eta gaur egun Urkiolan bizi da.**

Bai, 30 bat urte egin zituzten han. Bittorrek dimititu egin zuen. 63an Vatikanoko II. Kontzilioa egin zen, eta mugimendu horren barruan aldaketa nabarmenak egon ziren Eliza Katolikoaren barruan. Ezkerrerako bultzada eman zen, bereziki, latinoamerikan. Orduan hasi ziren esaten abadeak ezkontzeko aukera izan beharko luketela edo emakumeak ere abade izateko aukera izan beharko luketela. Eta abade euskaldunen talde hau ere korrante horren alde agertu zen, baina handik urte batzuetara atzera etorri zen dena, Eliza Katolikoaren barruan denetariko jendea dagoelako. Batzuk ezkertiarak dira, baina oso jende kontserbadorea ere badago, eta garai bakoitzean batzuk agintzen dute. Tira-bira handiak sortu ziren, eta Bittorrek erabaki zuen nahikoa lan egin zuela Ekuadorren, eta iritsi zitzaizela beraien kabuz aurrera egiteko ordua.

♦ **102 urte egingo ditu urrian. Nolakoa da bere egunerokoa?**

Mus zale amorratua da. Astean behin jokatzeko du mus partida ilobaren lagunekin. Horregatik jarri genion izenburu hori dokumentalari. Azken batean Bittorrek txikira egin zuen apustua, txikiei eta pobreei laguntzeko. Gizon oso jakintsua da. Ez da oso hiztuna, eta ez zaio gustatzen jende aurrean hitz egitea. Oso maitakorra da, baina esan digute lehen ez zela horrelakoa, askoz zorrotzagoa zela. Oso harreman ona izan dugu berarekin.

♦ **Nola suertatu zitzaizun dokumentala zuzentzeko aukera?**

Zesatenjuenaz ekoiztetzeko nire lankidea Durangokoa da, eta Urkiolako kultur elkarte batean parte hartzen zuen. Han entzun zuen Bittorren historia, eta argi ikusi zuen dokumental baterako ematen zuela gaiak. Halako batean apaiz batek deitu zion dokumental bat egiteko aurrekontu eske. 53.000 euroko aurrekontua izan du lanak. Ordaintzeko asko dela ematen du, baina dokumental honek lan handia zeukan. Ekuadorrera joan behar ginen, ekipo guztia hara eramán...

♦ **Zein metodologia jarraitu duzue?**

Hasieran fikzioa egin beharko genuela

ere pentsatu genuen, ez geneukalako irudirik. Baina azkenean irudi batzuk aurkitu genituen. 1948an hemengo apaiz batek bideo-kamera bat bidali zuen Ekuadorrera irudiak grabatzeko. Zine kamera bat erosi zuen 1948an! Izugarria! Bisionarioa izan zen! Kostatu zitzaigun irudiak lortzea! Denak mareatu genituen, baina lortu genuen! lazko martxoan hasi ginen lanean, maiatzean Ekuadorrera joan ginen eta urrian egin genuen aurrestreinaldia Urkiolan.

♦ **'Itsasoari begira' izan zen Zesatenjuenaz ekoiztetxearekin zuzendu zenuen lehen dokumentala, eta hau bigarrena. Bi lanek oinarrian elkartasuna eta autosuperazioa dituztela esan duzu. Zer esan nahi duzu horrekin?**

Egoera konkretu baten aurrean mundua ikusteko modua nola aldatzen den azaltzen du dokumental honek, eta baita aurrekoak ere. Daukazu egoerari nola egiten diozun aurre, azken batean.

Daukazu nola egiten diozun aurre, azken batean. Daukazu nola egiten diozun aurre, azken batean.

♦ **Kazetaritza ikasi zenuen. Nola iritsi zinen ikusentzunezkoen mundura?**

Idatzizko kazetaritza ikasi nuen, garai hartan ez zegoelako ikusentzunezkoen ikasketarik. Baina praktikak irratian eta telebistan egin nituen, eta ikasketak amaitu eta berehala hasi nintzen lanean telebistan. Aurrez Zazpiki Irratian ibilita nengoen, eta irratia izugarri erakartzen ninduen. Irratia izugarria da!

♦ **Orain zure ekoiztetxe propioa daukazu beste bazkide batekin. Zein proiektu dituzu eskuartean?**

Bilbon 25 urte bete dituen jazz klub bat dago, eta klub horretatik pasatu dira mundu mailako jazz musikaririk esanguratsuenak. Dokumentala egin nahi dute, eta horri buruzko laburmetrai bat egingo dugu seguruenik. Etorkizuna konplikatu da, eta lan handia egin behar da bizirauteko. Baina gustura ari gara, gustuko lana egiten.

“Bittorrek txikira egin zuen apustua, txikiei eta pobreei laguntzeko”



Bittor Garaigordobil, Órdago a pequeña dokumentaleko protagonista.



“Ez dira terroristak, ez dira gaizkileak; heriotzetik ihesi datoza”

▶ IÑIGO GUTIERREZ ITSAS SALBAMENDU TALDE HUMANITARIOKO BOLUNTARIOA

Elgoibar 2-dean taldeak Iluntze Solidarioa antolatu du martxoaren 30erako. Jaialdiaren barruan, Javi Julio argazkilari eta kazetariaren (Donostia, 1978) ‘Wait, just wait’ dokumentala eskainiko dute, errefuxiatuen drama agerian uzten duen dokumentala, eta ondoren, Izaro Andres abeslariak (Mallabia, 1993) kontzertua eskainiko du. Greziako bi kanpamentutan, Soudan eta Dipethen, grabatutako irudiak ikusi ahalko dira dokumentalean eta baita inguru hartan lanean diharduten Gipuzkoako bi gobernuz kanpoko erakundetako boluntarioen testigantzak entzun ere. Gobernuz kanpoko erakunde horietako bat da Itsas Salbamentu Talde Humanitarioa, eta talde horretako boluntarioa da Iñigo Gutierrez. Haren ahotik jaso dugu Greziako kanpamentuetan errefuxiatuek bizi duten egoeraren berri. “Izugarri krudela da errefuxiatuek bizi duten egoera eta animatu nahiko nituzke herritarrek dokumentala ikustera”, esan du. Herriko Antzokian izango da eta sarrerak salgai daude dagoeneko, 10 euroan. Hala ere, lehiatilan bertan ere erosi ahalko dira, 12 euroan.

- AINARA ARGOITIA -

◆ Nola sortu zenuten Chiosera laguntzera joateko ekimen hau?

2015era egin behar da atzera, Greziara errefuxiatu-saldoak iristen hasi ziren garaira, Turkiako Bodrum hondartzara

itota iritsi zen Aylan Kurdi 3 urteko haurra argazkiak informatibo guztiak zabaldu zituen garaira. Gipuzkoan Itsas salbamentu aritzen ginen hainbat lagun mobilizatzen hasi ginen hara laguntzera

joateko. Hainbat erakundetara jo genuen, baina erantzunik ez genuenez jaso, geu antolatzea erabaki genuen. Itsas Salbamentu Talde Humanitarioa sortu genuen, eta 2015eko azaroan abiatu ginen furgon

netaz Greziarantz bi lagun, uretako motoa hartuta. Laguntzera gindoazen, eta gure buruan Lesbosera –uharterik mediatikoena– edo Samosera iristea zegoen, baina Greziako kostazainek Chiosera joateko eskatu ziguten, han ez zegoelako artean salbamendu talderik, eta han bukatu genuen, ezerezaren erdian. Urte horretako Gabonetan berriro itzuli ginen, beste hiru lagun hartuta, eta gerora joan izan garenetan, 6-7 boluntarioko taldetan joan gara.

♦ Zertan aldatu da egoera lehenengoz joan zinenetik?

Egoera guztiz aldatu da. Duela urtebete arte –Turkia eta Europako Batasunaren arteko akordioa aurretik, 2016ko martxoaren 20a aurretik– gure lana gehiago zen itsasora begirakoa. Bizitza arriskuan jarritz zetozenei itsasoan ezer ez gertatzea zen gure erronka. Kostalderaino laguntzen genien, portu seguruetaraino. Jende horrek gehienez bi-hiru egun egiten zituen gero uhartean, paperak zuzendu artekoa. Orain ere lehenbailehen handik alde egiteko asmoz iristen dira, baina iritsi eta bat, aurrera egiteko trabekin egiten dute topo. Gehienak Grezian bertan gelditu dira, harrapatuta, eta bidean aurrera egin ahal izan duten gutxiek, mafiei ordainduta egin dute aurrera. Gure datuen arabera, 63.000 bat lagun daude Grezian, ez aurrera ez atzera, ahal duten moduan errefuxiatuen guneetan –esan gabe doa eufemismo bat dela– bizirautean. Iazko martxoaren 20tik atzera iritsi diren guztiak linbo juridiko batean daude, ekaitz perfektu batean harrapatuta. Turkiarekin sinatu zuen akordioarekin, jende horri guztiari errefuxiatuei dagokien asilo politikoa ukatzen ari zaie Europa, eta pertsona horiek guztiak usteltzen lagatzen. Han daude denak, gutako inork jasan ezingo lukeen baldintza negargarrietan, zain, noiz asiloa eskatu ahal izateko baimena emango dieten.

♦ Boluntario eta erakunde askok salatu duzue errefuxiatuen figura despolitizatu nahi dela migratzaile kategoria emateko.

Askok uste dute siriarrak direla Gre-

zian blokatuta dauden denak, eta badira kopuru handi batean, baina nazionalitate askotakoak daude han: pakistandarrak, afganistarrak, eritrearrak, nigeriarrak..., baina ezaugarri batek berdintzen ditu: etsi-etsian bizi dira denak, zer galdurik ez dutela. Gerra gordin batetik edo Afganistangoa moduko gerra larbatu batetik edo miseriarik gorrietik ihesi datoz. Eta gure agintari azal gogorrek esango digute migratzaile ekonomikoak direla, baina zer janik ez duenari edo bizitzeko oinarrizkoena ere falta duenari migratzaile ekonomiko esan dakiok? Nola, baina? Ez dit balio siriarrak bakarrik etor daitezkeela esateak, haiek daudelako orain gerran. Munduko bazter askotan daude ezin bizirik, eta euren lurretatik ihesi baldin bada toz, han bizitza arriskuan dutelako da; inork ez du bere gogoz sorterrira uzten, daukan guztia lagata, gutxi izanda ere daukana. Ez dute ongizatea bilatzen, bizitzeko bermea baizik. Eta garrantzitsuenak: ez dira terroristak, ez dira gaizkileak edota lapurrak; heriotzetik ihesi datoz.

“Bi ogitarteko lortzeko ilara egitea beste espektatibarik ez dute. Jendea burua galtzen ari da”

♦ Zenbat kobratzen diete mafiek Europara ekartzeagatik?

Ferrian hogeituro euroan egin dezakegun bidea egiteko, 1.500na euro ere ordaindu dituzte errefuxiatuek, eta orain, 700 bat eurona ari dira ordaintzen. Eta kostu ekonomiko horri gehitu bizitza bera arriskuan jartzen dutela gomazko ontzitzo horietan itsasoa gurutzatzean. Eta gehitu baita ere txaleko faltsuengatik, ura ikutzearekin batera pertsona hondoratzen duten txalekoengatik, ordaintzen ari diren beste 120na euro. Tarifero oso bat

dago. Gauzez bidaiatzea edo itsaso zarkarreko egunetan bidaiatzea merkeagoa da.

Hori da Europara iristeko mafiek kobratzen dietena, baina Europa barruan ere badaude beste mafia batzuk herrialde batetik bestera eramaten dituztenak. Grezian Kanadara iristea, adibidez, 9.000 euroan dago; Alemaniara iristea, 6.000 euroan, eta Espainiara iristea 2.500 euro inguruan. Droga trafikoa bera baino negozio errentagarriagoa da gaur egun mafientzat pertsonen trafikoa. Izugarria da.

♦ Eta hor ditugu milaka lagun Europako lurretan, bazter utzita.

Bai, zabortegietan botata ditugu. Soudako gunea (Chioseko udal kanpamentu irekia), esaterako, giza zabortegia da. Abuztuan egon nintzen ni han, eta kanpamentuetan 60-70 gradu izatera iritsi ziren, eta neguan, berriz, zero azpitik 3 graduraino izan zituzten, baina haizea eta hezetasuna kontuan hartuta, hotz-sentsazioa askoz handiagoa zen. Eta zer da ematen dieguna baldintza horietan bizirauteko? Ba kanpin denda handi baten tokitxo bat, edo bestela, Quechuako denda txiki bat eta Acnurrek emandako olanazko estalkitxo bat. Horixe da egiten diegun ongietorria.

♦ Eta nola prestatzen zarete zuek horlan egiteko?

Ez dugu prestaketa berezirik egin. Nik garbi daukat gurea erreza dela, gogorra izanda ere. Garbi daukadana da gutako inor ez litzatekeela gai izango han jasaten ari diren miseriak jasateko. Ez dute ezer, eta zain egotea beste irtenbiderik ez dute. Bizirautea. Ezin dira antolatu, ez dute ezertarako eskubiderik. Egunean bi ogitarteko lortzeko ilara egitea beste espektatibarik ez dute, eta han daude umez kargatuta. Badakizu zer den hori? Zer den hori guraso batentzat? Jendea burua galtzen ari da han. Itxaropentsuenak ere ezingo luke argirik ikusi han, hori ez delako bizitzea. Eta egiten duzu historia pixkat eta esaten duzu: 42an, gas ganberatan hiltzen zituzten juduak Alemaniako kontzentrazio esparruetan. Gogorra

zen, bai, baina haren ondoan hau izugarria da, orain ez ditugulako fisikoki hiltzen, baina bai moralki.

Atzo bertan, etsi-etsian, hiru lagunek uretara salto egin zuten igerian Turkiara bueltatzeko, eta jakina, ez dago haien berririk. Chiosen dauden moduan egotea hain zitzaien etsigarria, uretara salto egin zutela. Atera kontuak! Eta Greziako aldean txarto daude Serbian, han ditudan lagunak kontatzen dutenez. Jazarpen eta eraso izugarri latzak pairatzen dituzte han errefuxiatuek.

♦ Europak hiltzera kondenatu ditu?

Bai, Europak ez ditu exekututzen, baina hil egiten ditu. Psikiatrak hasi dira ondorioez ohartarazten, eta hemendik urte batzuetara inork nahi ez dituenak pasatzen hasten direnean, zergatiak topatzen hasiko gara gu, baina alferrik izango da.

♦ Zein perfilekoak dira zuekin han lanean dabilzan boluntarioak?

Zaildutako gizon-emakumeak dira, larrialdi zerbitzuetan eta egoera zailetan lanean ibilitakoak, asko ikusi eta bizitakoak. Perfil teknikoa dute gehienek, baina hala ere, asko ikusi ditut negarrez, erabat etsita. Nahikoa da Soudako kanpamentuan ate batetik sartu eta bestetik irtetea boluntario horrek hondoa joteko. Zer ikustera zoazen jakinda ere, han dagoena ikustea beti da tupustekoa; beti hartzen dizu gaina. Umeak hotzaren hotzez negarrez ikustea ikaragarria da, eta hura dagoenetan laga eta etxera itzultzea ere gogorra da. Benetan diotsut ez dakidala gizatasunak nora egin digun ihes.

♦ Hainbat aldiz izan zara han. Ikusita-koak ikusita, zaila egingo zaizu orain ahaztea, ezta?

Ahaztu? Nik ezin dut hori ahaztu. Ez da gizalegezkoa ere. Nekagarria da batzuetan, gure denbora librea eskaintzen diogulako hangoei laguntzen, baina hura ikusi duenak ezin du ahaztu. Europak nahi duena da erratza pasa eta alfonbra azpian gordetzea zikinkerki guztia. Eta jende guzti honen sufrimendua ahaztuta, Europaren joku zikina babesten ariko ginatkegu ikusgarri egin behar ditugu errefuxia-

tuak; hori dagokigu guri: salatzea. Behar beste alditan joango naizela esana diot neure buruari, eta beteko dut hitza.

“Ikaragarria da. Europak ez ditu errefuxiatuak exekututzen, baina hil egiten ditu”

♦ Zer egin genezake hemendik?

Komunikazioan diharduzuenoi eskatuko nizueke ez ahazteko gai hau. Al-biste egiteko egunero, egunero gertatzen zaizkielako gauzak. ‘Errefuxiatu’ hitza entzuten dugu tarteka oraindik ere, baina krisi humanitarioaren gaia desagertu da albistegietatik. Eta gainerako denei eskatuko nieke salatzeke pertsona hauei egiten ari zaizkiena. Giza eskubiderik oinarritzkoenak urratzen ari dira, eta gizalegez dago-kigu horren kontra egitea. Jakin behar dugu hauei egiten ari zaizkiena bihar edo etzi, agintariei komeni zaienean, guri ere egin diezaguketela, eta besterik ezean gurekoikeriz, amaitu behar dugula egoera hau. Ahaztu dezagun guri lekua jatera datozen kontu hori. Ez gaitezen jausi amarru horretan. Ez gaitezen hasi pobreak pobreen kontra. Guk arazoa ez daukagu gure parekoekin, gure gainetik daudenekin baizik. Esan diezaiegun gure agintariei nahikoa dela.

♦ Atzo [astelehena] bete zen urtebete Turkiak eta EBk akordioa izenpetu zutenetik eta pentsatzekoa da ez dela orain itsasoz lehen beste jende etorriko, baina iristen al dira oraindik ere?

Bai, ez lehen beste, baina bai. Joan zen astean zazpi ontzi iritsi ziren, eta hori mila bat pertsona dira. 2015ean, egunean sei-zazpi ontzi iristen zitzaizkigun.

♦ Zein da zuen egitekoa orain momentuan Chiosen?

Mediku-erretan bat daukagu, iristen diren errefuxiatuei laguntzeko, eta kanpalekuetan, ahulenekin ari gara lanean, emakumeekin eta gaixo kronikoekin. Era berean, iristen direnen ahoko-osasuna zaintzeko proiektua ere jarri dugu abian hango dentistekin lankidetzan, eta harremanetan gaude Mediterraneoko uretan lanean ari diren beste gobernuz kanpoko erakunde batzuekin gure pertsonala haien zerbitzura jartzeko. Aztertzen ari gara, bestalde, lau hilabetez ontzi bat bidaltzea hara, itsasoa zaintzera, baina diru asko da, eta ez dakit lortuko dugun.

♦ Greziako kostalde hori Frontex-ek, mugen kontrolerako agentziak, zaintzen du orain, baina pentsatzekoa da zaintza hori gehiago izango dela polizia, ala?

Guztiz polizia. Ez daude han jendea erreskatatzeko. Poliziak dira, eta ez doaz uretara salto egiteko prestatuta. Gu, gobernuz kanpoko erakundeak, traban geunden, eta uretatik atera gintuzten. Ontzi bat topatzen dutenean, itsasontzira igoarazten dituzte errefuxiatuak, atxilotzeko. Paradogikoa da, baina behintzat azkeneko itsas milia hori ganorazko itsasontzi batean egiten du jende horrek, baina, jakina, atxilotuta datoz. Gaizkile gisa tratatzen dituzte, eta absurduaren absurdua dena: portutik hiriburutik hamar kilometrorra dagoen eremu militar batera eramaten dituzte autobusez, fitxa poliziala egitera, eta autobuseko txartela ordaintzera behartzen dituzte.

♦ Hilaren 30ean Jabi Julioren ‘Wait, just, wait’ (Itxaron, egon zain) dokumentala emango duzue Elgoibarren. Zer esango zenioke herritarrei?

Joateko ikustera. Barrua nahasten duen dokumentala da, baina inork ez dezala pentsatu irudi sobera gogorrak ikusiko dituenik. Dokumentalaren azkeneko partea oso lasaia da, baina jende guztia nahasita irteten da aretotik. Errefuxiatuek zer sentitzen duten ikusi eta sentituko dute ikusentzuleek.

'Jokoz kanpo' antzerkia taularatuko dute gaur Herriko Antzokian



C.D. Elgoibarren mendeurrenaren harira, *Jokoz kanpo* antzezlanak taularatuko du gaur iluntzean Borobil Teatroak Elgoibarko Herriko Antzokian. Futbola du oinarrian obrak. Anartz Zuazuak zuzendu du antzezlanak, eta Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Asier Sota dira aktoreak. Futbolaren munduari buruzko obra satirikoa da, eta umorearen bitartez futboleko jokoz kanpo dauden hainbat balore erakutsiko dituzte. Herriko Antzokiko oholtza futbol zelai bihurtuko dute. Manuk eta Martinek mutikoskorrek entrenatzen dituzte. Aspalditik ezagutzen dute elkar, eta lehia handia dute elkarren artean, bai futbol zelaietan eta baita handik kanpo ere. Futbol finala dute begien bistan, eta finala irabazi egin nahi dute. Garaipena dute nor direla frogatzeko modu bakarra, bizitzan ez daudela jokoz kanpo erakusteko aukera bakarra. Erreflexiorako bidea emango die antzezlanak ikusleei, bereziki, futbolaren baitan dabiltzan guraso eta entrenatzaileei. 20:30ean hasiko da emanaldia eta doan izango da.

Elgoibarko Udalak gurasoentzako formazio hitzaldiak antolatu ditu herriko ikastetxeekin

Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak, Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkartearekin eta Ikastolako Guraso Kontseiluarekin lankidetzan, gurasoentzako bi formakuntza-hitzaldi antolatu ditu, seme-alaben harremanen inguruan hausnartzeko helburuarekin. Lehenengo hitzaldia eguaztenean izan zen: *Nola indartu edo aholkatu nire seme-alaba lagunartean?* izenburupean berdinen inguruan egon daitezkeen zailtasunei buruz hitz egin zuten. Bigarren hitzaldia, berriz, apirilaren 5ean izango da: *Nola egin seme-alabek etxean kasu apur bat egin diezaguten?* Kasu honetan, zailtasunaren muina guraso edo helduek dutenean aztertuko da, eta seme-alabekin erabili ahal izateko diziplina positibo batzuk emango dira. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da saioa. Izar Arregik eskainiko du saioa, eta bi emanaldi eskainiko ditu; 15:00etatik 17:00etara gaztekeraz eta 18:00etatik 20:00etara, euskaraz. Interesatuek aurrez eman beharko dute izena kalamua@googlegroups.com edota eigk.formakuntza@elgoibarikastola.eus posta elektronikoen bidez.

Korrikaren amaierako jaira joateko autobusa egongo da Elgoibartik

Apirilaren 9an amaituko da Korrika Iruñean, eta Elgoibarko AEK Euskaltegiak autobusa antolatu du Korrikaren azken jaira joateko. Interesatuek AEK euskaltegian eman beharko dute izena: Gabriel Kurutzelaegi 10ean, 607 601 423 telefonora deituta edo elgoibar@aek.eus e-postara idatzita. Martxoaren 31 izango da izena emateko azken eguna.


Gogoratu, bestalde, Korrika apirilaren 5ean iritsiko dela Elgoibarrera, goizeko 7:00etan. Azkoititik etorriko dira korrikalariak Azkaraten behera, eta Elgoibartik pasatu ondoren, Mendarora abiatuko dira.

Gaurko bertso saioak hasiko ditu Motxaila Eguneko ekitaldiak

Motxaila Eguna antolatu dute Mendaron biharko, eta horren harira, bertso saioa egingo dute gaur, San Agustin kulturgunean, 22:00etatik aurrera. *Zerua motxailen aterpe* izenburupean, Unai Iturriaga, Julio Soto, Alaia Martin eta Jone Uria arituko dira bertsoetan. Gai jartzaile lanak Iñigo Zubiaurre *Beitxi* mendarorak egingo ditu. Sarrerak 5 euro balio ditu.

Bihar, berriz, goiz hasiko dute eguna. Ohi legez, Aitz Beltz kobazulora egingo dute ibilaldia oinez, eta han hainbat ekintza egingo dituzte: antzerkia, poesia errezitaldia, musika zuzenean... Ondoren, herri bazkaria egingo dute Gaztetxean. Bazkalostean Urteko motxaila izendapena eskainiko dute Daradarakustikek eta Inozentzio pailazoak.

19:00etan, bestalde, Gaztetxetik abiatuta poteoan irtengo dira, Agosti eta Barrenarekin. Egunari amaiera emateko, erromeria izango da Gaztetxean, Erokomei taldearekin.



▶ **PEDRO
AZPIAZU**
GRABATZAILEA

“500 urte baino gehiagoko ofizioak galtzen ari dira gure belaunaldiarekin”

Bizitza osoa eman du burila eskuan hartu eta grabatzaile lanetan. Orain, erretiroa hartuta dabil eta aitortu du “alferrak hartuta” ibili dela denbora luzean, baina ekin dio berriro ogibide ez ezik pasio izan duenari. Aguaforte ikastaroa emateko deitu zioten Egur arte tailerretik eta gustura aritu da talde txiki bati irakasten. Pena du, baina, instituzioei ez dielako halako interesik ikusten eta galbidean ikusten duelako arte hori.

- AINARA ARGOITIA -

◆ Aguaforte ikastaroa eman duzu Elgoibarren. Zer da aguafortea? Eta nolatan heldu zenieten honi?

Grabatu modalitate bat da. Azidoarekin plantxan, txapan, grabatzeari esaten zaio. Lehenengo txapa hori lixatu eta leundu egin behar izaten da, gero koipe-gabetu eta barniza eman ondoren. Behin barniza eman eta gero, marratzaile batekin marrazkia egiten da txapan, eta hori, marrazkia izango den hori, barniz barik gelditzen da. Hala, azidotan sartutakoan, azidoak barniz gabeko hori jaten du plantxa sortuz. Klase honetako eskolak lehenengo eman ditut. Interesa agertu zidaten eta orain asti nahikoa daukadanez, animatu egin nintzen. Ni grabatzailea izan naiz beti, baina burilez grabatu izan dut.

◆ Noiz hasi zinen grabatzaile lanetan?

13 bat urterekin. Eskolan ez nintzen batere abila, eta ikasteko gogo handirik ez neukanez, ofizioa ikastera bidali ninduen aitak. Gure aitaren lagun batekin, Lucio Uriguen *Etxegiñarekin*, ikasi nuen burila erabiltzen eta marrazten. Etxegiñarekin denbora bat egin ondoren Eibarrrera joan nintzen marrazten ikastera, Luis Markanorengana. Zer zenik ere ez nekiela hasi nintzen mundu honetan, baina aukera eman dit erretiroa hartu artean gustura lan egiteko, eta damurik ez dut.

◆ Esan duzu marrazten jakitzea ezinbestekoa dela grabatzaile izateko, baina zer beste ezaugarri behar dira?

Pazientzia izatea eta erremintak ondo erabiltzen ikastea. Pultsu ona izatea ere ia

derrigorrezkoa da, baina pultsua ere hezten den kontua da. Era berean, ikusmen ona izateak ere laguntzen du, baina gaur egun, betaurrekoekin-eta, zuzendu daiteke.

◆ Industriari lotuta ezagutu dugu grabatua gure bueltan, baina honek gehiago du artetik, ala?

Bai, lagatzen digutenean, bai. Kontua da industriak produkzioari erreparatzen diola, lehen batez ere, eta eskopetak eskatutako egunerako ateratzeko izaten zen presa lagun txarra zela grabatzailearentzat. Askok ulertu ez arren, grabatzaileak denbora behar du gauzak ondo egiteko. Joan dira produkzio handiko gariak. Orain, kalitatea eskatzen dute, eskopeta fina. Gertatzen da, hala ere, bezeroak normalean garbi izaten duela

zer marrazki nahi duen, eta eredu a eskuan duela datorrenean, tarte gutxi izaten duela grabatzaileak sormen lanerako. Derri gor huraxe egin behar izaten da. Baina gozatu, libre lagatzen diotenean gozatzeko du grabatzaile onak.

♦ **Zer da grabatzeko eskatu dizuten gauzarik kuriosoena?**

Sei eskopetatan Kamasutrako hemezortzi irudi grabatzea.

♦ **Denbora aipatu duzu. Ezin esan orduan gaur egunerako lanbidea denik.**

Hori ba! Grabatuak ikusi du bere azkenena. Guk erretiroa hartu dugu, eta ondorengorik apenas daukagun. Lana badago, baina zeinek eginik ez. Baina ez grabatuan bakarrik; eskopetagintzan alor guztietan dago arazo hori: baskulagintzan, kaxagintzan... Pena da.

♦ **Sektore honek gure bueltan izan duen indarrarekin gezurra dirudi.**

Gauzak ez dira behar bezala egin. Inor ez da arduratu jendea formatzeaz.

♦ **Garaiz gaude oker egindakoak zuzentzeko?**

Berehala hasi beharko ginateke; bestela, nekez. Beste bi-hiru gazte gelditzen dira lanean, baina hori gutxi da. Gehienok hartu dugu erretiroa, baina zorionez, geuk ere erakusteko moduko sasoia daukagu eta pixkat errekuiperatzeko aukera izango litzateke, baina beti ere segituan hasiz gero. Ni ahalegindu izan naiz, eta aurkeztu izan ditut paperak Diputazioan eta Jaularitzan-eta, baina honezkerobotako zituzten haiek, traban izango zituztelako. Politikariek ez dute inolako interesik honetan. Politikariei teknologia eta argazkitan euren buruak agertzea interesatzen zaie; besterik ez. Artisautza ez dago baloratuta, eta pena da, hemen falta denean kanpotik ekartzen hasiko direlako, askoz gehiago ordainduta. Baina benetako damaskinatua eta grabatua moduan galdu dira hemen beste gauza asko, gure inguruko industria ondarearen parte behar luketena. Adibidez, forja artistikoa. Inon egon bada forjaria, Elgoibarren izan da, eta orain ez dago bat. Zergatik? Ez delako biderik eman ikasteko. Laguntasuna behar da instituzioen aldetik, dirua behar

delako eskolak sortzeko ere, baina instituzioak politikariren esku daude, eta haie ez die ardura honek. Gai honetan analfabeto batzuk dira. 500 urte baino gehiagoko ofizioak ari dira galtzen gure belaunaldiarekin batera eta horretxek ematen dit pena. Norbaitek hartuko balu hau berpizteko ardura, nik gustura lagunduko nioke.

“Norbaitek hartuko balu hau berpizteko ardura, nik gustura lagunduko nioke”

♦ **Ikastaroa antolatu duzue, baina zure berbetatik ondorioztatzen dut ez dela nahikoa, ezta?**

Ez da. Poztekoa da jende batek interesa izatea, baina grabatzen ikasteko hirlabeteko ikastaro batekin jai dago. Gutxienez hiru bat urte behar dira grabatzen ikasteko. Baina ikastaro honi lotuta badago gauza interesgarri bat: torkulua eta instalazioak hor izango dituztela geroago erabili nahiko balituzte ere. Ikastaroan, teknika oinarrikoa irakasten dugu, eta gero bakoitzak landu ahalko du teknika nahi beste, lekua badutela. Beharko banindute, gainera, ni libre nago eta ondoan izango naute laguntzeko.

♦ **Zein perfiletako jendea izan duzu ikasle? Nola moldatu dira?**

Ondo. Zailena hasiera izaten da beti, eta momentu zailenean daude orain, baina behin oinarrikoa ikasita eta bitartekoak eskura izanda, nik uste dut polito ibili daitezkeela, interesik baldin badute behintzat. Ikastaroan ibili den gazteenak 40 bat urte izango ditu, eta gainerakoak erretiroa hartutakoak dira.

♦ **Grabatuari ez zaio itxuraz duen baliua aitortu, baina zure lan batzuk urrutira iritsi dira. Zure lanetatik zein daukazu estimatuen?**

Ipar Ameriketako Independentzi de-

klarazioaren kakografia da bat. Testua oso-osorik grabatu nuen, zegoen moduan, oker idatzitakoak barne, eta Washingtongo kongresuan dago lan horren kopia. Lan handia izan zen, kakografian dena aldrebes egin behar izaten delako, gero paperera bolkatzerakoan zuzen irakur dadin. Kontatzekoak baino ordu gehiago eman nituen hori egiten. Gustavo Dorek Quijoterako egin zituen 120 iruditatit 12ren plantxak ere eginda daukat eta hainbat autorentzako plantxak ere sortu ditut, enkarguz. Goyaren bi autoerretrotoren plantxak ere badauzkat Madrilgo Kakografia Nazionalen. Baina hainbeste gauza egin ditut zaila zaizkidala nire gustukuenak aipatzea. Izan ere, jardun naiz eskopetagintzan, bitxigintzan, dekoraziorako grabatuak egiten, grabatu industrialean, kakografian...

♦ **Kakografia aipatu duzu. Zure lan batzuk ezagunak dira, baina kakografia bera ez da asko entzundako kontua hemen. Nolatan hasi zinen?**

Hori egia da. Grabatzaile asko egon gara hemen, baina inork ez du kakografia egin. Zergatik izan den? Jakizu! Pintore askok egin dute grabatua, baina hemen ez. Eibarren, Jazinto Olabe batek-eta, ez dut uste grabaturik egin zutenik. Zuloagaren familiakoak ere damaskinatzaileak ziren, baina kakografiarik ez zuten egin. Ni 1979an edo hasi nintzen. Kakografia ikastaroa antolatu genuen Armeria Eskolan, Fernando Beorlegirekin. Beorlegiz aparte, Ramos Uranga eta Mari Pury Herrero [Mari Jaia egin zuena] etorri ziren ikastaroa ematera. Ni, ia 40 urteko, ikasle ibili nintzen han, neure kontura, eta hantxe ikasi nuen dakidana. Industriari baino lotuagoa egon da kakografia arteari eta beharbada horregatik izan du horren estimazio gutxi, baina ni harritzen nau gure bueltako artistek ere horren interes gutxi eduki izana. Ikastaro haren ondorenean erakusketa jarri genuen Eibarren, eta etorri ziren grabatzaile lagun askok galdetu zidaten ea zer ote ziren haiek; ea lumaz eginikoak ote ziren lan haiek.

Jose Gurrutxaga krosa, apirilaren 2an

Elgoibar Ikastolak jakinarazi duenez, edizio berezia izango da aurtengo Jose Gurrutxaga Krosa. Apirilaren 2an jokatu da 24. edizioa, eta hil diren hiru pertsona izango dituzte gogoan. Batetik, Jose Gurrutxaga bera, korrikalari ezaguna eta krosari izena eman ziona. Bestetik, urteetan kronometratazaila lanak burutu zituen Ricardo Garate. Eta, azkenik, Elgoibar Ikastolak antolatzen dituen hainbat ekintzetan esatari lanetan aritu izan zen Angel Iriondo. Aurten ere, Mendaro eta Elgoibarko ikastetxe desberdinetako haur eta gazteek parte hartu ahal izango dute, adin eta luzera desberdinetako 13 lasterketetan. Dagoeneko 750 korrikalari daude izena emanda, eta azkenengo karreran parte hartu nahi dutenak, (2000. urtetik aurrera jaiotakoek) beraien karrerako ordua (12:00) baino lehenago udaletxeko arkupetan apuntatu ahal izango dira.

Iker Jausoro zena omendu zuten C.D. Elgoibarrek eta Aloña Mendik

Mendiko istripuan hil zen Iker Jausoro omendu zuten Haundiren eta Aloña Mendiren arteko partidaren atarian. Oñatiarra zen Jausoro, eta Aloña Mendi futbol taldeko jokalaria izan zen gazte-tan. C.D. Elgoibarrekin ere harreman handia zuen, Futbol Eskolako entrena-tzaileetarikoa bat zelako. Bi taldeek, hortaz, omenaldia eskaini zioten zapatuan Mintxetan. Iker Jausororen alargun Olatz Arriolak eta semeek eta haren gurasoek eta anaiak hartu zuten parte ekitaldian. Lore sortak, kamisetak eta beste zenbait orogarrak eman zizkieten bi taldeetako ordezkariak. Banako berdinketarekin amaitu zen elgoibartarren eta oñatiarren arteko lehia.



Emaitza onak eskuratu zituzten atleta elgoibartarrek

Zestoako krosean



Zestoako sanjosetako 39. Herri Krosa lasterketa jokatu zuten aurreko domekan. Mintxeta Atletismo Taldeko 21 neska-mutilek parte hartu zuten benjamin, alebin eta infantiletan, eta lan ederra egin zuten. Infantil mutilen lasterketan Zakariae El Hachmik lortu zuen garaipena eta laugarren egin zuen Andoni Oriok. Nesken lasterketan ere aurreneko postuetan sailkatu ziren elgoibartarrak: bigarren egin zuen Mariam Ahdadoug, hirugarren Garazi Inesak eta laugarren postuan sailkatu zen Maialen Izagirre. Alebin mutilen lasterketan Anwar El Hassouni Ben Aissak lortu zuen hirugarren postua nabarmendu behar da. Nagusien lasterketan (8,5 km.) ehun antxitxikari inguruk hartu zuten parte, eta Ruben Aranburu azpeitiarra izan zen irabazlea gizonetan; eta Maite Arraiza barakaldoarra, berriz, emakumeetan. Gonzalo Saez Hernando elgoibartarrak bosgarren postua eskuratu zuen gizonaen artean, eta Pilar Arriolak zazpigarrena, emakumezkoetan.

Iker Amutxastegi gogoan izango dute Elgoibarko Hiria Sarian

Elgoibarko Lagun Taldea Txirrindulari Eskolak antolatuta, jubententzako 37. Elgoibarko Hiria Saria txirrindulari proba jokatu da domekan (martxoak 26), 16:00etan. Txirrindularitza eskolako arduradunek jakinarazi dutenez, aurreko astean auto istripuan hil zen Iker Amutxastegi omenduko dute proba hasi aurretik, Kalegoen plazan. Izan ere, klubeko kide eta zuzendaria izan zen Amutxastegi. Minutu bateko isilunea egingo dute, eta lora sorta bat oparitu tuko diote Amutxastegiren alargunari.

'Mendaro bizikletaz', domekan

Mendaroko txokoak bizikleta gainean ezagutzeko asmoz, 'Mendaro bizikletaz' ekimena antolatu du Arno Guraso Elkarteak, Mendaroko Udalaren laguntzaz. Domekan, hilaren 26an, izango da. Herriko Enparantzatik abiatuko dira 10:00etan. Bi ibilbide prestatu dituzte: motza (1,5 km.) eta luzea (2,5 km.). Parte hartzaileek hamaiketako eta ura eramane beharko dituzte. Gaur da izena emateko azken eguna. Interesatuak arnomendiage@gmail.com helbidera idatzi behar dute, joango diren lagunen izen-abizenak, haurren ikasturte maila eta telefono zenbaki bat adieraziz.

Kirol Campusa

6 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzenduta dagoen Aste Santuko Kirol Campusean izena emateko epea martxoaren 31n bukatuko dela ohartarazi du Udal Kirol Patronatuak. 2010 eta 2003 urte bitartean, biak barne, jaiotako haurrek eman dezakete izena.

Cristal Cup txapelketara joateko txosna jarriko dute C.D. Elgoibarko jubenilek



C.D. Elgoibarreko jubenilen taldeak Portugaleko Praia de Viera herrian jokatu den Cristal International Cup nazioarteko txapelketan parte hartuko du, apirilaren 12tik 16ra bitartean. Bidaia eta egonaldiko gastuei aurre egiteko, txosna jarriko dute gaur (martxoak 24) Malako parkean. Otzarreta harategiak saltzen dituen Croqueta y presumida etxeko kroketak salduko dituzte, 16:30etik 22:30era bitartean. Debako Skaleak taldearen musikak alaituko du giroa, eta haurrentzako jolasak ere prestatu dituztela jakinarazi dute.

Idi kintopekoen dema apustua, martxoaren 31n

Unai Egaña eta Manuel Zendoiaeren kintopeko idien arteko dema jokatu dute Elgoibarko Sigma probalekuan, martxoaren 31n, bari-xakua (22:00). Apirilera ere beste bi idi dema apustu antolatu ditu Sigma Probaleku Elkarteak.



Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 1 – Aloña Mendi 1 (Oho. erreg.)
 Iluari B 1 – Elgoibar 0 (1. erreg.)
 Elgoibar 3 – Euskalduna 0 (Oho. jub.)
 Soraluze 2 – Elgoibar 4 (Jub. 1. maila)
 Lazkao 3 – Elgoibar 2 (Oho. kad.)
 Internacional 0 – Elgoibar 6 (Inf. 1. maila)
 Amaikak Bat 5 – Elgoibar 4 (Aleb. errendi.)
 Arrasate B 4 – Elgoibar 3 (Aleb. parthartze)

SASKIBALOA

STL Azkune 71 – Viento Sur Elg. 58

ESKUBALOA

Alcorta F.G. 27 – Dominicos Zaragoza 25 (senior giz.)
 Lauko 28 – Bera Bera 29 (Senior emak.)
 Salento 30 – Legazpi 29 (Sen. giz.)
 Beristain 35 – Urduliz 25 (Jub. mut.)
 Tecnifuelle 28 – Kukullaga 17 (Jub. nesk.)
 Corazonistas 17 – Deca Elg. 30 (Jub. mut.)
 Usurbil 30 – Urkunde 24 (Kad. mut.)
 C. Astigarraga 26 – Ereintza 25 (Kad. nesk.)
 Cometel 21 – Eibar 20 (Kad. nesk.)
 Bergara 27 – Bankoa 22 (Kad. mut.)
 Ereintza 19 – Murgil 20 (Inf. mut.)
 H. Txarriduna 25 – Bidasoa 24 (Inf. mut.)
 Aiala D 30 – Pneumax 25 (Inf. nesk.)
 Ordizia 13 – Modeltek Elg. 9 (Inf. nesk.)

Agenda

ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 26

12:30 Concepto Egile – Pinseque (Naz. maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 25

12:00 Elgoibar – Real Sociedad (Oho. kad.)

16:00 Elgoibar – Ordizia (1. erreg.)

18:00 Elgoibar – Bergara (Jub. 1. maila)

Domeka, 26

11:00 Elgoibar – Villabona (Inf. 1. maila)

ESKUBALOA (Olaizaga Kiroldegian)

Barixakua, 24

18:30 C. Astigarraga – Aloñamendi (Kad. nesk.)

Zapatua, 25

10:00 Modeltek – Leizaran (Inf. nesk.)

11:15 Pneumax – Ereintza (Inf. nesk.)

12:30 Dario Elg. – Pulpo (Kad. nesk.)

17:30 Deca – Aloñamendi (Jub. mut.)

19:30 Lauko – Aiala Zarautz (Senior emak.)


Domeka, 26

10:00 Bankoa – Pulpo (Kad. mut.)

12:30 Sanlo – Pulpo (Aleb.)

Hautacametik Saint Laryra eskiatzen

Deba bailarako 21 eskiatzailek hartu zuten parte Morkaikok Pirinioetan antolatutako eski zeharkaldian. Hautacam eta Saint Lary eski estazioak bi etapatan batu zituzten eta Pic d' Gourgget (1.610 m.) tontorrera ere igo ziren. Mendian ikusitako paisaiez ederrez gainera, elur baldintzak eta eguraldia bikainak izan zirela azaldu dute.



LANA.....

Eskaerak

Elgoibartarra eta euskalduna etxeak garbitzeko prest. ☎ 649 782 967

Adinekoak zainduko nituzke. Interna ere bai. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 632 490 649

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 688 698 854

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 688 712 075

Sukaldari laguntzaile edo zerbitzari lanetarako prest. ☎ 631 369 704

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia daukat. ☎ 632 436 462

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 680 808 125

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 638 920 358 / 602 193 095

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. ☎ 658 734 699

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. ☎ 645 891 307

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 685 724 861 / 943 748 899

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Asteburutan ere. Esperientzia. ☎ 631 506 763

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. Interna ere bai. Esperientziarekin. ☎ 648 039 187

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. ☎ 632 026 510

Adinekoak zainduko nituzke. ☎ 631 613 245

Adinekoak zainduko nituzke, goizetan. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 602 057 185

Adinekoak zainduko nituzke. Interna ere bai. ☎ 649 044 223

Nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 612 493 242

Nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan egingo nuke lan. Esperientzia. ☎ 626 407 923

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta malgutasun osoa. ☎ 612 550 377

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Prestutasun osoa. ☎ 666 197 835

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat. Orduka edo interna moduan. ☎ 697 665 452

Asteburuetan eta gauetan adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 651 156 456

Nagusiak zainduko nituzke. Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. ☎ 632 983 250

Nagusiak zainduko nituzke. Interna moduan lan egiteko prest nago. ☎ 612 266 877

Nagusiak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo interna moduan. Esperientzia daukat. ☎ 602 490 595

Elkarte gastronomikoak eta etxeetako portalak garbitzeko prest nago. ☎ 617 571 210

Eskaintza

Jatetxerako sukaldari laguntzailea eta zerbitzaria behar dira. ☎ 620 810 120

Elgoibarko taberna baterako enkargatua behar da. Esperientziarekin. Bidali curriculum elgoibartaberna@outlook.es helbidera.

ETXEBIZITZAK.....

Alokairua

Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 622 162 798

Bi logelako pisua alokatzen dut Ubiartean, igogailu eta altzari guztiekin. ☎ 656 720 238

Pisua edo logela bat behar dut alokairuan. ☎ 632 533 475

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 631 369 704

Pisua alokairuan hartuko nuke Elgoibarren. ☎ 688 895 568

Apartamentua alokatzen dut San Frantzisko kalean. Berrituta dago eta igogailua dauka. ☎ 616 708 247

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 602 490 595

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 688 723 121

LOKALAK.....

50 metro koadroko lokala alokatu edo saltzen dut, Basarten. ☎ 669 245 520

BESTELAKOAK.....

Tag Heuer Monaco etxeko erlojua galdu dut kiroldogian. Saritu egingo da. ☎ 627 417 833



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Komunitatean igogailua jartzeko erabaki dugu, eta obrek lokal bati eragiten diote. Lokal horren jabeak, baina, lokala hirugarren bati saldu dio, eta jakin nahiko genuke jabe berri hori lotuta dagoen batzarrean aurrez adostutakoa betetzera.

Ondasun higiezin baten jabetza eskuz aldatzen denean, komunitate horretako parte izatera pasatzen denak oso-osoan hartzen ditu bere gain saltzaileak komunitatearekin zituen betebeharrak. Horien artean dago, legearen arabera, saltzaileak zituen zorrak kitzatzea. Era berean, erosleak bere gain hartu behar ditu saltzaileak aurrez onartutako erabakiak betetzea. Komunitatean igogailua jartzeko hartutako erabaki horrek lokalari ere eragiten dio zuk azalduko kasu horretan, lokal horren parte bat ere erabili beharko delako obran. Beraz, lokal horren jabea behartuta dago balizko erosleari karga horren berri ematera, komunitateak ez duelako zertan beste erabaki bat hartzeko tramitea hasi behar.

AHOLKUA: pertsona batek ondasun bat saltzen duenean, izan ditzakeen karga guztiekin hartzen du erosleak ondasun hori. Gauza horiek, beraz, saltzailearen eta eroslearen arduraren gain dago. Saltzaileak komunitatean adostua duten guztia- ren berri eman behar dio erosleari, hura ere lotzen dutelako akordio horiek. Baina kontu horiek bien artean konpontzekoak dira eta jabeakideen komunitateak ez du gai horretan inolako erantzukizunik izango.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Koldo**, gaur 4 urte egin dituzulako. Muxu handi bat anaia Julen eta etxekeoen partez.



Zorionak, **Martin**, zure bosgarren urtebetetzean. Lehengusina Paularen partez.



Zorionak, **Danel**. Gure deabrutxoak jada 3 urte handi! Muxu bat familiakoen eta bereziki Markel eta Endikaren partez.



Bihar 10 urte! Zorionak eta ondo pasa, **txapeldun!** Muxu handi bat etxeke guztien partez.



Zein ondo pasa dugun zure seigarren urtebetetzean! Zorionak eta muxu asko gure **etxeke sorginari**.



Zorionak, **Lide**. Igandean 5 urte beteko dituzulako. Etxekoek eta bereziki neba Paulen partez.



Gure udaberriko larrosak dagoneko 5 urte handi! Zorionak, **June**, etxekeoen partez.




Zorionak **prinzesa** zure bederatzigarren urtebetetzean. Muxu bat eta ondo pasa etxeke guztien partez.



Zorionak, **Maia**. Zure hamaikagarren urtebetetzean. Muxu bat familiakoen eta batez ere Gorkaren partez.



Zorionak, **Jon** zure laugarren urtebetetzean. Muxu potolo bat, Markel, Jakes, Helene eta Paularen partez.



Zorionak, **Amaia eta Ane!** Patxoak familia osoaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENe astekarian edo
www.barren.eus webgunean
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

943 744 112



BARREN

Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR



Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com

EGUZKITAKO
BETAURREKOETAN
AUKERA ZABALA.

19€ gehiagogatik
GRADUATU ITZAZU!

* Kontultatu baldintzak



24 BARIXAKUA

16:30 Txosna eta musika, Maalako parkean. Debako Skalariak musika taldeak parte hartuko du. 22:30 aldera arte egongo da txosna zabalik.

18:30 Erakusketa: Egur arte eskolako umeek eginiko margolan eta zeramika lanak jarriko dituzte ikusgai, Elgoibarko Kultur Etxean. Apirilaren 1era arte egongo da zabalik.

20:30 Antzerkia: 'Jokoz kanpo'. C.D. Elgoibarrek antolatuta, Elgoibarko Herriko Antzokian.

22:00 Bertso saioa, Mendaroko San Agustín kulturgunean, Julio Soto, Unai Iturriaga, Alaia Martín eta Jone Uriarekin.

25 ZAPATUA

9:00 Azken zapatuko feria. Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai, Kalebarren plazan.

11:00 Atabal elkarteak prestatutako pintxoak salduko dituzte txosnan.

12:00 Kale Kantariak. Kalebarren plaza-irteeraren diru kantua.

12:00 Haur eta gaztekoentzako landaketa tailerra.

Egueditik aurrera, ganadu erakusketa, Aita Agirre plazan.

9:00 Motxaila Eguna, Mendaron.

15:00 Herri bazkaria, Mendaroko gaztetxean.

19:00 Poteoa.

Gauerdian, erromeria Erokomei taldearekin. Gaztetxean.

11:00 Ate irekiak. Idotorbeko San Pedro elkartearen ezagutzeko aukera egongo da.

26 DOMEKA

10:00 'Mendaro bizikletaz'. Herriko Enparantzan hasiko da.

16:00 Lagun Taldeak antolatuta, txirridulari lasterketa. Kalegoen plazan hasiko da. Aurretik, Iker Amutxastegiri omenaldia egingo diote.

16:30 Antzerkia: 'Pintto pintto'. Anita Maravillas Teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

29 EGUAZTENA

20:30 Batzarra: Mendaroko Ameikutz musika eskolaren urteko batzar nagusia egingo du. Mendaroko musika eskolan.

17:00 Hitzaldia: Haurrentzako lehen sorospena. Maitasunez hazi taldeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

30 EGUNA

20:30 'Iluntze solidarioa'. 2-dean taldeak antolatuta, Herriko Antzokian. *Wait just wait* dokumentala eta Izaro abeslariaren kontzertua.

Nabarmenduak

Iluntze Solidarioa

Martxoak 30
20:30ean
Herriko Antzokian

Errefuxiatuen egoera azalera-
tzeko Iluntze Solidarioa antolatuko du Elgoibar 2-dean taldeak. *Wait just wait* dokumentala eskainiko dute lehenengo, eta ondoren Izaro abeslariaren kontzertua emango du. Sarrerak 10 euroan daude salgai ondorengo establezimenduetan: Pitzintxu, Jai-Alai, Lanbroa, Iriondo, Tantaka, Kas-trilleko estankoa, Guridi (Eibar). Lehiatilan egunean bertan ere erosteko aukera egongo da, 12 euroan.



ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan udako ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, martxoaren 26an, **2:00etan, ordubetez aurreratu beharko** da ordularia.



Zinea (Herriko Antzokian)



LOGAN

'Logan'

25 zapatua: 19:00 / 22:15 VOS
 26 domeka: 19:00
 27 astelehena: 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G U A R D I A K	09:00 - 22:00	20:00 - 22:00
	17 Barixakua IBAÑEZ*	* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik: BARRENETXEA (Elgoibar) Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277
	18 Zapatua GARITAONANDIA	
	19 Domeka GARITAONANDIA	
	20 Astelehena ETXEBERRIA	22:00 - 09:00 MANDIOLA (Eibar) San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533
	21 Martitena FERNANDEZ*	- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142
	22 Eguaztena YUDEGO	- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638
23 Eguena ORUESAGASTI*	- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384	
24 Barixakua BARRENETXEA		

NATUR HOUSE
Ainara Iriando Ansola
 GIZA EUKADURAN ETA
 DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
 Eibar
 Tel.: 943 198 020
 Mng. 677 551 850

RPS 183/12
Uzuri
 optika audio

Elgoibar
 Tel.: 943 740 359

Deba
 Tel.: 943 192 192

**Mari Jose
 RUIZ PORRES**
 Doktorea

GINEKOLOGOA

R.P.S. 82/15
 Madina Radiologia
 Toribio Etxebarria 4, 1 - Eibar
 Tel.: 943 202 857
mj.ruizporres@gmail.com

**leku
 eder**
 hortz klinika

RPS 171/12
 Elena Herrero Lobo
 Aita Agirre Enparantza, 5
 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus

RPS 65/07
 San Bartolome, 10
 Tel.: 943 743 734

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida

RPS 271/12

ainhoa
 fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
 Elgoibar
 943 531 953
 669 565 745

aldaz
 hortz klinikak

RPS233/13
Tel.: 943 366 377
 San Bartolome, 22
 20870 Elgoibar

fisio&mas
 Fisioterapia aurreratua eta
 Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
 943 740 191 / 667 933 098
www.fisio-mas.com
 RPS 172/08



Eire Vila

Mikel Olaizola



Ekonomia, *o i k o s nomos*, gizakiaren berezko borroka etxea kudeatzen asma-tzea, bizirautea, gisa guztietako beharrak asetzea. Baratza orubean, tailerra etx-bean, ordenagailu aurrean lanean intuitu dezaket norbait lehen solairuko idazma-haian. Gure herriaren historia garaikidea teilatupe bakarrean bilduta. Edo hiru be-laualdiren sokan.

Aitonak besteren lurra landu du bere eskuz; basomutil herri arrotzetan, morroi auzoan, artzain bakarti. Gaur akitua, bi-zitzak lehertua, sekula izango ez naizen

gorputz indarrez bete bat izan da. Hamalau ziren neba-arrebak. Gaztele-raz egi-tera bidali zuten Arabako herri galdu batera mutiko, gerraostean; ez zuen se-kula ikasi, eta bere begiradak eta musikak erori den mundu bat dakarte. Bizitza bera borroka.

Aitari industriaren koipez eta hautsez belztu zaizkio atzazkalak eta birrikak, berrogeita zazpi urteren ondotik. Trantsizio katebegi, aztoramen urteetan. Amets han-dien eta frustrazio handiagoen aro baten kide; Ernestoren iraultzaren eta itsasau-rreko bigarren etxe baten desiraren anbi-balentzian. Borrokatzeko hautua egin zuten, eta galdu.

Niretzat, ahalik eta odol eta izerdi gu-

txien isurita bizi ahal izatea izan dute hel-buru, eta energiak beste bide batzuk hartu ditu, nerabeak inaustera. Ospitalean jai-o-tako, kalean hazitako, unibertsitatean he-zitako lehena gure katean. Libre izatera kondenatua; edo libre izana uste izatera. Epikarik gabe hilko garela onartuta nago.


Historia etengabeko aldaketen jario, kontraesan berdinetara itzultzeko. Hatzamarrak findu zaizkigu eta burua hazi; baina, lehen eta orain, gure lan-indarra saldu beste aukerarik ez desjabetuok, bi-ziko bagara. Denaren gainera eskertzen diet nongoa naizen transmititza, klase-kontzientzia oinordetzan jaso izana.

Langileen seme eta biloba, beraien bezala langile.

“Denaren gainera eskertzen diet nongoa naizen transmititza, klase-kontzientzia oinordetzan jaso izana”



Emaiguzu **BARREN** komunikazio proiektuari buruz daukazu iritzia



BARREN Komunikazio proiektua herritarrekin eta herriarentzat eginiko proiektua da. Hori dela eta, herritarrek proiektuari buruz duten iritzia ezagutu nahi dugu, komunikazio proiektua hobetu ahal izateko. BARREN komunikazio proiektuak bi euskarri ditu: BARREN astekaria paperean eta barren.eus webgunea Interneten. Bi euskarri horiei buruzko galdeketa prestatu dugu, eta hori betetzea eskertuko genizueke, gure bi euskarriak irakurleen beharretara egokitu ahal izateko.

- ◆ Siplea eta erraza da inkesta betetzea.
- ◆ Inkesta orria BARRENeko bulegoan eska dezakezu.
- ◆ Inkesta online betetzeko aukera ere baduzu, www.barren.eus atarian.

**Zure iritzia guretzat garrantzitsua delako.
Mila esker BARRENi zure denbora eskaintzeagatik.**


Inkesta entregatzeko azken eguna:

Martxoak 31

Non entregatu?

BARREN astekaria

(Kalebarren plaza 2, behe) edo
Elgoibarko Izarra (Ubitarte 4 behe)



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112



Mari Carmen Lizarralde Txurruka


2017ko martxoaren 16an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.




I. URTEURRENA

Eduardo Hernandez Delso

2016ko martxoaren 24an hil zen, 70 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 25,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.





- KOLTZOIAK • KANAPEAK
- SOMIERRAK • BURKOAK
- NORDIKOAK
- OINARRI TAPIZATUAK
- ATSEDENERAKO GUZTIA
- BEREZKO FABRIKAZIOA



Bernardo Ezenarro, 17
20870 ELGOIBAR
Tel. 943 74 30 31
www.decotena.com

DECOTENA, S.L.

LUXURY KOLTZOI BERRIA!

Grafenoari esker hartu atsedeen berorik pasa gabe!
Modelo berriaren irteera-eskaintza %20ko deskontuarekin.



Udarako izara bilduma berria!



IMH



IZAN AL ZARA INOIZ IMHn? ZATOZ ETA EZAGUTU GAITZAZU!

INGENIARITZA DUALEKO
UNIBERTSITATE GRADUA

GOI ETA ERDI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOAK

Informazio saioa IMHn: APIRILak 1, 11:00^{etan}
HEZIKETA ZIKLOAK + Ingeniaritza GRADU DUALA

Bertaratzea baieztatu:
INGENIARITZAn: 943748264 (Itziar Egiguren) / ZIKLOETAN: 943748265 (Amaia Ansola)

Hurrengo saioak:

Maiatzak 20 - 11:00^{etan}
Heziketa Zikloak eta
Ingeniaritza Gradu Duala

Maiatzak 24 - 18:00^{etan}
Heziketa Zikloak

Ekainak 14 - 17:00^{etan}
Ingeniaritza Gradu Duala

Harremanetarako www.imh.eus

